

ARRANTZALEA ETA KATUA-II

Anton Erkorekak Bermeon bildutako kondaira zaharra

Titara zuen adineko emakumea zen eta soilik sorginek zuten titara. Horrek ematen zion boterea lapurtzeko, auzokoei berak gura zuena kentzeko, edo baita gauetan animalia, katu edo txakur edo edozeren forma hartzeko ere.

Egun baten bada, joan zen arrantzale bat itsasora. Eta harekin ere haserrekontza edo zerbait izan zuen. Eta hemen atsoak esan zuena:

- Orain hartuko diot horri mendekua.

Eta katu forman planta zitzaion arrantzaleari, korrikan joaten uzten ez ziolarik. Eta besteak bada, korrikan egin behar eta egiten zion salto. Eta gero orduan zer egin zuen? Erramuarekin jo zuen eta katuak alde egin zuen intzirika.

Atsoa *Talagoitxikoa* zen eta han bizi zen. Hurrengo egunean, itsasotik etorri eta hara arrantzaleak epaitegirako deia jaso zuen. Atso hurari zer dela eta apurtu zion izterra. Eta besteak esan zion:

– Nik andreari! Nik inongo andrearik ez badut jo!

– Eta baietz. Berak jo egin duzula, berak jo duzula erramuarekin dio.

– Nik? Ni goizaldean itsasora nihoala katu bat etorri zitzaidan. Nik andrearik ez dut jo. Nik jo dudana katu izan da.

- Eta irten zen bada zelan izan zen atsoa katu formaz egon zena.

Anton Erkoreka

Etnografia de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000